

ONDARROA LANTZEN S.A.

Barne Arauak Kontratazio gaietan

2008ko abendua

AURKIBIDEA

1. APLIKAZIO EREMUA	1
2. XEDEA	1
3. KONTRATATZAILEAREN PROFILA	2
4. BARNE ARAUON MENDEKO KONTRATUAK	2
5. BARNE ARAUON INTERPRETAZIOA	3
6. KONTRATAZIO BARNE ARAUDIAN ARAUTUTAKO KONTRATUETAN APLIKA DAITEKEEN ERREGIMEN JURIDIKOA ETA BERE IZAERA	4
7. KONTRATAZIO ORGANOAK	4
8. ENPRESABURUAREN GAITASUNA ETA KAUDIMENA	5
9. BEHAR ADINAKO BERMEAK	6
10. KONTRATUEN NOLAKOTASUNA ETA EDUKIA	6
11. KONTRATISTA HAUTATZEA ETA KONTRATUAK ESLEITZEA	
11.1- KONTRATU-MAILAK	8
11.2- PUBLIZITATEA	9
11.3- ESLEITZEKO PROZEDURAK	10
11.4- KONTRATISTA HAUTATZEA	12
11.5- KONTRATUA GAUZATZEA	12
12. ARRAZIONALIZAZIO TEKNIKOKO ARAUAK	13
13. JURISDIKZIO ESKUDUNA	13

1. APLIKAZIO EREMUA

ONDARROA LANTZEN, S.A. merkataritza sozietate bat da eta sozietatearen kapitala Ondarroako Udalaren jabetzakoa da erabat.

ONDARROA LANTZEN, S.A. sektore publiko esaten zaionaren zati bat da; halakoa da urriaren 30eko 30/2007 Legearen, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoaren arabera –aurrerantzean SPKL edo, besterik gabe, Lege izenez aipatuko da– 3.1 d) artikuluan jasotzen denarekin bat etorrita. Alde horretatik beraz, nahiz eta administrazio publiko ez izan, betetzen ditu “botere esleitzaila” izateko ezaugarriak (SPKLko 3.3 b) artikuluari jarraiki). Eta horren ondorioz, hain zuzen, aplikagarriak zaizkio Legeak berak horretarako jasotzen dituen aginduak.

Bestetik, ONDARROA LANTZEN, S.A.k egiten dituen kontratuak pribatuak dira SPKLko 20.1 artikuluan jasotzen denaren arabera: “kontratu pribatu izango dira administrazio publiko izateko baldintzak betetzen ez dituzten sektore publikoko erakunde, organismo eta entitateek eratzen dituztenak”.

2. XEDEA

Kontratazio Barne Araudi honen (aurrerantzean Barne Araudia izango dena) xedea da barne prozedurak arautzea ONDARROA LANTZEN, S.A.k egiten dituen kontratuak esleitzeko; alegia, SPKLko 175. artikuluan adierazitakoa bermatzea, publizitatea, lehia, gardentasuna, konfidentziasuna, berdintasuna eta diskriminazio ezari dagokionez, eta, horrez gain, kontratua esleitzea ekonomikoki abantaila gehien dituen eskaintzari; betiere, erregulazio harmonizatuaren mendeko kontratuak ez baldin badira.

Barne Araudia ONDARROA LANTZEN, S.A.ko Administrazio Batzarrak onartu zuen **2008ko abenduaren 9ko** hartutako erabakiaren bidez, eta **onartuz geroztik egon da indarrean**. Beraz, araudia ezarriko zaie data horretatik aurrera hasitako espediente guztiei.

Barne Araudi hau betetzea nahitaezkoa da ONDARROA LANTZEN, S.A.ren baitan, eta argitaratu behar da kontratatzailearen profilean.

3. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

ONDARROA LANTZEN, S.A.k Internet bidez zabalduko du bere kontratatzailearen profila, kontratuei dagokien jardueri buruzko informazioa gardena eta publikoa izan dadin.

Kontratatzailearen profilean azaltzen den informazioa publikoki noiztik aurrera zabaltzen hasi den egiaztatu beharra dagoenez kontratatzailearen profila hartuko duen sistema informatikoak baliabideren bat izan beharko du horretarako.

Urte bakoitzeko 50.000 euro baino gehiagoko lizitazioak eta esleipenak argitaratuko dira kontratatzailearen profilean, eta argi adieraziko da zein den esleipenduna eta esleipen horren zenbatekoa.

Eta hala behar badu, bestelako datuak eta informazioa ere eman daiteke kontratatzailearen profilaren bitartez ONDARROA LANTZEN, S.A.ren kontratuei buruz.

4. BARNE ARAUON MENDEKO KONTRATUAK

ONDARROA LANTZEN, S.A.k betetzen dituen kostubidezko kontratu guztiek bete beharko dute Barne Araudi hau, kontratu horien izaera juridikoa edozein izanda ere; salbu geratuko dira, aldiz, honako hauek:

1. SPKLko 4. artikuluan araututako negozio eta erlazio juridikoak.
2. SPKLko 13. artikuluen eta bat datozen artikuluen arabera erregulazio harmonizatuaren mendeko diren kontratuak. Kontratu horiek Legearen 174. artikuluen arabera esleituko dira.

Honako hauek dira erregulazio harmonizatuaren mendeko kontratuak:

ONDARROA LANTZEN. Kontratazio Barne Araudia

- Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzakontratu oro.
- Obra kontratuak eta obra publikoko emakida kontratuak, baldin eta 5.150.000 euro edo gehiago kalkulatu bazaie.
- SPKLko II. Eranskineko 1. mailatik 16. mailara bitarteko hornikuntza kontratuak eta zerbitzu kontratuak, 206.000 euroko balioa, edo handiagoa, kalkulatu baldin bazaie.
- Diruz lagundutako kontratuak, SPKLko 17. artikuluan arautuak.

3. Berriaz araututako kontratuak edo aplikagarria den sektoreko araudiak berriaz salbuetsiak. Kontratu horiek berriazko araudi horren arabera esleituko dira eta.

5. BARNE ARAUON INTERPRETAZIOA

Inoiz, Barne Araudi honi jarraiki, SPKLko arauen bat moldatuta aplikatu beharko da, edo araua bete-betean ezin aplikatu, eta zatiren bat soilik aplikatuko da, eta, noizbait, SPKLko beste artikuluren batek –eta betiere, Barne Araudi honen arabera aplikagarria bada– egokitutako edo moldatutako arau horretara bagaramatza, egokitzapen edo moldaketa horiek egin egingo direla ulertuko da.

SPKLko 76. artikuluan jasotako arauen arabera kalkulatu da kontratuen balio zenbatetsia, Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe.

Barne Araudi honetako 10. atalean adierazten den zenbatekoa, hain zuzen ere, SPKLko II. Eranskineko 17. eta 27. mailen bitarteko zerbitzu kontratuei dagokiena, eta ONDARROA LANTZEN, S.A.ren kontratuak erregulazio harmonizatuaren mendekoak direla jotzen diren zenbatekoak eguneratuta daudela joko da, SPKLko Hamalagarren Xedapen Gehigarrian adierazi bezala, Europako Batzordeak zehaztutako zenbatekoekin bat etorrira.

6. KONTRATAZIO BARNE ARAUDIAN ARAUTUTAKO KONTRATUETAN APLIKA DAITEKEEN ERREGIMEN JURIDIKOA ETA BERE IZAERA

Kasu guztietan, sektore publikoko erakundeentzat nahitaezko xedapenen mende egongo da ONDARROA LANTZEN, S.A.ren kontratazio prozedura, alegia, Barne Araudi honetan araututako prozedurak nahitaezko arauak beteko ditu erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuetan, eta betiere, SPKLn ezarritakoarekin bat etorrita.

Eta zehazki, SPKLko I. Liburuan (“Sektore publikoko kontratazioaren eraketa orokorra eta kontratuetako elementu estrukturalak”) adierazitako arauak izango dira aplikagarriak, hain zuzen ere, haien edukiगतik ONDARROA LANTZEN S.A.ri aplikatu ahal zaizkionak, baldin eta sektore publikoko botere esleitzaila ezin bada administrazio publikotzat sailkatu.

7. KONTRATAZIO ORGANOAK

Kontratazio espedienteak onartu eta horien gastuak baimentzeko, eta, hala dagokionean, kontratuak esleitzeko, hona hemen jarraitu beharreko eskema, sozietatearen botere egiturarekin bat datorrena:

- 18.000 eurorainoko gastuak. Horrelako espedienteak ONDARROA LANTZEN, S.A.ko gerenteak onartu eta esleitu ahal izango ditu, **baita ordainketa egin ere**. Horren berri emango dio Administrazio Kontseiluari, eta organo horrek kontrolatuko du gastua, hala nahi badu.
- 10.000 € eta 50.000 € bitarteko gastuak. ONDARROA LANTZEN, S.A.ko gerenteak onartu eta esleitu ahal izango ditu horrelako espedienteak, betiere Administrazio Kontseiluko presidentearen oniritzia duela.
- 50.000 € baino gehiagoko gastuak. Horrelako espedienteak onartzeko eta esleitzeko Administrazio Kontseiluaren onespena behar da.

8. ENPRESABURUAREN GAITASUNA ETA KAUDIMENA

ONDARROA LANTZEN, S.A.ko lizitazio prozeduretako kontratistak soilik izango dira jarduteko erabateko gaitasuna erakusten duten pertsona espainiarrak edo atzerritarrak, eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatu beharko dute, edo, bestela, Legeak hala eskatzen duen kasuetan sailkatuta egon beharko dute.

Era berean, ezin da kontraturik egin SPKLko 49.1 artikuluan definitutako kontratazio-debekuren bat duten pertsonekin, eta enpresa horien segida dakartenekin ere ez, alegia, zernahi dela ere –dela arduradunengatik, dela enpresak eraldatu, elkartu edo oinordetu direlako– debekua izan duten haien jarraipena direla ondorioztatzen bada, ezingo da horiekin kontraturik egin.

Kasu bakoitzean eskatzen diren gutxieneko gaitasunak eta kaudimenak lotura izan behar du kontratuaren xedearekin, eta proportzionalak izan beharko dute harekin.

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta tekniko edo profesionala, dagokion lizitazio prozeduran zehaztu bezala egiaztatuko da, kontratuaren egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta.

SPKLko xedapenak beteko dira, sektore publikoko erakunde guztietan aplikatzekoak direlako; baina kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta tekniko edo profesionala egiaztatuko dira lizitazio bakoitzean zehazten dena kontuan hartuta, eta, horrez gain, kontratazio organoak egoki iritziz gero, aplikatu ahal izango dira SPKLko 64. artikulutik 68. artikulura bitartekoak.

Orobat, SPKLko 54.5 artikuluekin bat etorrita eta, betiere, kontratuaren egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta, eskatu ahal izango da enpresaburuak bere kaudimena egiazta dezala dagokion sailkapena aurkeztuta.

Enpresaburuak, gutxienez, zein kaudimen behar duen eta zer dokumentazio aurkeztu beharko duen, biak ala biak lizitazio iragarkian adieraziko dira eta, hala behar badu, kontratuaren orrietan jasoko dira horri buruzko zehaztasunak.

9. BEHAR ADINAKO BERMEAK

Kontratuaren egoera eta ezaugarrien arabera, baliteke lizitatzailerei behin-behineko berme bat eskatzea, beren eskaintzak mantendu ahal izateko esleipena egin arte; esleipendunari ere behin betiko bermea eskatzea ere badago, kontratua behar bezala beteko duela bermatzeko.

Eskatutako bermeak SPKLko 84. artikuluan jasotako edozein eratan aurkeztu ahal izango dira.

10. KONTRATUEN NOLAKOTASUNA ETA EDUKIA

Zerbitzu kontratuak 206.000 eurokoak badira, edo gehiagokoak, eta SPKLko II. Eranskinen 17. eta 27. mailen bitartean badaude, SPKLko 121.1 artikuluan eta horrekin bat datozen xedapenetan adierazitakoa bete beharko da.

Barne Araudi honetako gainerako kontratuetarako, berriz, plegu bat egin beharko da, betiere, kontratua 50.000 euro baino gehiagokoa baldin bada, **hau da, Barne Araudi honetako 11. atalean definitzen diren 2. eta 3. mailako kontratuak** badira. SPKLko 121.2 artikuluan eta horrekin bat datozen xedapenetan adierazitako edukia izango du pleguak, nahitaez, eta, horrez gain, kontratazio organoak egoki irizitako beste zernahi ere eskatu ahal izango da. Hona hemen, artikuluko horretako edukia:

- a. Kontratuaren oinarritzko ezaugarriak.
- b. Aldaerak onartzeko erregimena.
- c. Eskaintzak jasotzeko moduak.
- d. Enpresaburuen gutxieneko gaitasuna eta kaudimena lizitazioan parte hartu nahi izanez gero.

e. **2. mailako kontratuetan (Barne Araudi honetako 11. atalean definitu dira)**, eta kontratazio organoak egoki iritziz gero, hiru gonbidapen egingo dira, gutxienez, izangaiek euren eskaintzak aurkezteko eta izangaiak hautatzeko kaudimen irizpideak ere, gutxienez, hiru izango dira.

f. Baloratuko diren irizpide teknikoak eta ekonomikoak kontratua esleitzean ekonomikoki abantaila gehien dituen eskaintza zein den erabakitzeko.

g. Balorazio-organo bat eratzea aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko duena, eskaintzak balioztatu eta esleipen proposamen bat aurkezteko, kontratazio organoak horren beharra dagoela uste badu .

h. Aukeratutako lizitatuak edo lizitatuak zer berme behar duten eratu, halakorik behar bada.

i. Hala badagokio, SPKLko 104. artikularekin bat datorren informazioa, laneko kontratuetako subrogazioetako baldintzei buruzkoa.

j. Zer hedadura objektibo eta behin-behineko izango duen, hala ezarriz gero, enpresaburuari ezarriko zaion konfidentzialtasun betebeharrak.

k. Zein epe eman behar den, halakorik eman behar bada, lizitatuak informazio osagarria lor dezaten eta eskaintza aurkez dezaten, edo, hala badagokio, parte hartzeko eskaerak aurkezteko; eta baita ere, kontratazio organoak horren premia dagoela uste badu, aurkeztutako dokumentazioa zuzentzeko.

l. Kontratua gauzatzeko epea adierazi, baldin eta ezarri nahi bada, hamar egun naturaleko epea ez den beste bat.

m. Barne Araudiaren 11.3 atalean definitutako 3. mailako kontratuak badira, justifikatuko da, Barne Araudi honetan adierazitako baldintzei jarraiki, kontratazio organoak zer esleipen prozedura hautatu duen.

Plegua kontratuaren zati bat izango da, nahiz eta kontratu bakoitzaren berezitasunak direla eta, proiektu tekniko bat edo baldintza teknikoaren agiri bat ere egon beharko den.

Proposamenak balioztatzeko eta ekonomikoki abantaila gehien dituen eskaintza zein den aukeratzeko, kontratuaren xedearekin zuzeneko lotura duten irizpideak hartuko dira kontuan, hala nola: kalitatea, prezioa, zer formula erabil daitekeen obraren erabilerarekin edo zerbitzua eskaintzearekin lotura duten ordainketak berrikusteko, zer epe eman den lana burutzeko edo eskaintzeko, erabilera-kostua, ingurumeneko ezaugarriak edo betebeharrak sozialak betetzearekin lotura duten ezaugarriak –kontratuan zehaztutako beharrei erantzun badiete eta kontratatuko diren prestazioak erabili edo baliatuko dituzten onuradunak premian dauden bizilagunak badira–, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetiko edo funtzionalak, ordezkotzeko eskuratzeko modua eta kostua, mantentze lanak, laguntza teknikoa, saldu osteko zerbitzua edo antzeko beste batzuk.

Esleipen irizpide bakarra erabiliko bada, irizpide hori prezio txikienarena izango da, nahi eta nahi ez. Irizpide bat baino gehiago kontuan hartuko bada, berriz, zehaztuko da irizpide bakoitzari zer ponderazio erlatibo egotzi zaion.

11. KONTRATISTA HAUTATZEA ETA KONTRATUAK ESLEITZEA

11.1. KONTRATU-MAILAK

Kontratu bakoitza esleitzeko prozedura eta baldintzak zehazteko asmoz, Barne Araudi honetan hiru kontratu-maila ezarri dira, kontratuon zenbatekoaren arabera:

- 1. maila: Maila honetan daude 50.000 € baino gutxiagoko balioa kalkulatu zaien kontratuak, kontratua edozein motatakoa izanda ere.

- 2. maila: 50.000 eurotik gorako balioa kalkulatu zaien kontratuak eta gehienez ere:

1.000.000 € artekoak obra kontratuak baldin badira.

150.000 € artekoak gainerako kontratuetan.

- 3. maila: 2. mailako kontratuei baino balio handiagoa kalkulatu zaien kontratuak, baldin eta erregulazio harmonizatuaren mende ez badaude.

ONDARROA LANTZEN. Kontratazio Barne Araudia

11.2. PUBLIZITATEA

Kontratu maila edozein izanda ere, uste bada kontratuaren balioa 50.000 euro baino gehiagokoa dela lizitazioari dagokion informazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Hala ere, informazioa zabaltzeko beste baliabide batzuk ere erabili ahal izango dira, beharrezkoa iritziz gero, kontratuaren egoeraren eta ezaugarriaren arabera; hala nola: aldizkari ofizialak, tokian tokiko argitalpenak edo Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala. Eta betiere, zabaldu ahal dira aurretik iragarkiak esleitzeko asmoa dagoen kontratuei buruz, izan ekitaldi batekoak zein urte anitzekoak.

Lizitazio-iragarkiak informazio hau eduki behar du:

- a. Deskribapen zehatz bat kontratuaren oinarritzko xehetasunei buruz.
- b. **Kontratua esleitzeko prozedura. Eskaintzak aurkezteko epea adierazi behar da, eta prozedura negoziatuari dagokionez, enprekin negoziatuko diren arlo ekonomikoak eta teknikoak ere.**
- c. **Prozedura negoziatuari dagokionez**, eta kontratazio organoak egoki deritzonean, proposamenak aurkeztera gonbidatzeko izangaiak zein kaudimen irizpideren arabera hautatuko diren, eta eskaintzak aurkezteko gonbidatuz gero, hori egiteko epea.
- d. Informazio gehiago lortu ahal izateko, ONDARROA LANTZEN, S.A.rekin harremanetan nola jarri.

2. mailako kontratueterako, baldin eta 200.000 euro baino gutxiagoko obra kontratuak badira, eta 60.000 euro baino gutxiagokoak gainerako kontratuetan (**hau da, zerbitzu edo hornikuntza kontratuak**), ez da beharrezkoa izango kontratatzailearen profilean lizitazio-iragarkia eta dagokion plegua argitaratzea. Nahikoa izango da egin nahi diren kontratuak eta horretarako aurreikusitako epeak generikoki adieraztea.

Orain arte adierazitakoaz gain, ez da zertan publizitaterik egin SPKLko 154. artikulutik 159.era jasotako prozedura negoziatuko kasuetan, baldin eta 161. artikuluari jarraiki, ez badute publizitaterik behar.

11.3. ESLEITZEKO PROZEDURAK

Hona hemen, azaldutako kontratu-maila bakoitzean aplikatu ahal diren esleipen prozedurak:

a. 1. mailako kontratuak: Esleipen zuzena

Maila honetako kontratuak zuzenean esleitu ahal zaizkio edozein enpresabururi baldin eta erakusten badu jarduteko gaitasuna baduela eta prestazioa burutzeko beharrezkoa den gaitasun profesionala. Hala ere, hiru enpresabururi eskatu behar zaie eskaintzak aurkezteko.

Eskaintzari dagozkion aurrekontuak bildu eta dagokion kontratua sinatuko da, edo, bestela, ONDARROA LANTZEN, S.A.ko gerenteak, besterik gabe, aurrekontua berariaz onartuko du idatziz, eta aurrekontua onartu duela adierazi beharko du.

Kontratua bete dela egiaztatu eta gero, dagokion prezioa ordainduko da, enpresaburuak aldez aurretik dagokion faktura eta faktura onartu izana aurkeztu eta gero.

b. 2. mailako kontratuak: Prozedura negoziatua

2. mailako kontratuak prozedura negoziatuaren bidez esleituko dira. Hona hemen, prozeduraren arauak:

1. Ahal den guztietan, kontratuaren xedea betetzeko gaitasuna duten hiru enpresari, gutxienez, eskatu behar zaie eskaintza egiteko. Kaudimen irizpide objektiboak ezarri ahal ditu Kontratazio organoak aukeratu ahal izateko proposamenak aurkeztera gonbidatu diren eta interesa erakutsi duten izangaien artean. Era berean, gonbidapena egiteko gehienezko izangai kopuru bat ere ezarri ahal da, baina inoiz ere ezin da hiru baino gutxiago izan. Nolanahi ere, gutxienez, dagokion pleguan adierazi behar dira irizpide objektibo horiek eta, nahi izanez gero, kontratuaren iragarkian ere bai.

Hala ere, enpresa bakar bati eskatu ahal zaio eskaintza aurkezteko, baldin eta arrazoi tekniko edo artistikoengatik, edota eskusibo izateko eskubideak babestearren kontratua enpresaburu jakin bati soilik esleitu ahal bazaio.

2. Kontratazio organoak balorazio organo bat eratzea eska dezake konplexutasun teknikoagatik edota kontratuaren egoera edo ezaugarri bereziengatik beharrezkoa dela uste baldin badu. Eta balorazio organoa eratu nahi izanez gero, halaxe adierazi beharko da pleguan. Organo horrek aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu eta eskaintzak balioztatu beharko ditu eta, era berean, esleipen proposamen bat aurkeztu kontratazio organoari.
3. ONDARROA LANTZEN, S.A.k kontratuko edozein gai negoziatu ahal izango du lizitatzailerekin, betiere, eta hala dagokionean, pleguan jasotakoaren arabera.
4. Nolanahi ere, kontratua ekonomikoki abantaila gehien dituen eskaintzari esleituko zaio, pleguan adierazitako irizpide ekonomikoei edo teknikoei jarraiki.
5. ONDARROA LANTZEN, S.A.k idatziz jasota utzi beharko ditu egin dituen gonbidapenak, bildu dituen eskaintzak eta beroiek onartzeko edo ezeztatzekeo arrazoiak.

c. 3. mailako kontratuak: Prozedura irekia

3. mailako kontratuak prozedura irekiaren bidez esleituko dira. Hona hemen, prozedurari dagozkion arauak:

1. Lizitazio prozeduran parte hartu ahal izateko ezaugarriak eta baldintzak jaso beharko dira Baldintza ekonomikoen eta administratiboen pleguan edo agirian eta Baldintza teknikoaren agirian.
2. Lizitazioa, gutxienez, kontratatzailearen profilean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, edo, bestela, kontratatzailearen profilean eta Bizkaiko egunkari batean. Baldintza ekonomikoen eta administratiboen agirian zehaztu beharko da zein aukeratu den.

3. Proposamenak aurkezteko epea pleguan adierazitakoa izango da, eta ezingo da, inolaz ere, hamabost egun baino gutxiagokoa izan, epea murrizteko egoera bereziak gertatu ezean behinik behin.
4. Proposamenak isilpekoak izango dira eta gutunazal itxietan aurkeztu behar dira, pleguan zehazten den erara.
5. Kontratazio organoak erabakiko du zer irizpide hartuko dituen oinarri kontratua esleitzeko eta baita irizpideen ponderazioa ere; iragarkian eta Baldintza ekonomikoen eta administratiboen agirian adierazi beharko dira.

Kontratazio organoak ekonomikoki abantaila gehien dituen eskaintzari esleitu dio kontratua, betiere pleguan jasotako proposamenak balioztatzeke irizpide objektiboekin bat etorrira.

Kontratazio organoak proposamenarekin bat etorri gabe esleitzen baldin badu kontratua, arrazoitze egin behar du bere erabakia. Esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Prozedura irekiari buruz pleguan edo Barne Araudi honetan berariazko aipamenik egiten ez bada, SPKLko artikulua hauek aplikatuko dira: 141.a, 142.a, 144.a (inolaz ere ezin da aplikatu aurreikusitakoa adituen talde batek edo erakunde tekniko espezializaturen batek esku-hartzeko), 145.a eta aplikatu daitezkeen beste artikulua batzuk horiekin lotura dutelako, betiere administrazio publikoa ez den beste botere esleitzailerik bati dagozkion moldaketak eginda.

11.4. KONTRATISTA HAUTATZEA

Hautatutako kontratistaren berri emango zaie prozeduran parte hartu dutenei eta ONDARROA LANTZENeko kontratatzailearen profilean argitaratuko da, kontratuaren egoera eta ezaugarriengatik beste erabakiren bat hartzen ez bada, behintzat.

11.5. KONTRATUAK GAUZATZEA

ONDARROA LANTZEN, S.A.k barne arauon mende egiten dituen kontratueta aipatuko dira, nahitaez, segidan datozen hauek, betiere SPKLko 26. artikularekin bat etorrita eta pleguan lehendik jasota ez baldin badaude:

- a. Alderdien identifikazioa.
- b. Kontratua izenpetzeko sinatzaileek duten gaitasuna egiaztatua dela.
- c. Kontratuaren xedearen definizioa.
- d. Kontratuan aplikagarria den legeriari egindako erreferentzia.
- e. Kontratua osatzen duten dokumentuen zerrenda.
- f. Egiazko prezioa edo hori zehazteko era.
- g. Kontratuaren iraupena edo aurreikusitako datak, alegia, noiz betetzen hasiko den kontratua eta noiz amaituko den eta, aurreikusita egonez gero, baita luzapenen datak ere.
- h. Prestazioak jasotzeko, emateko edo onartzeko baldintzak.
- i. Ordaintzeko baldintzak.
- j. Kontratua zein kasutan suntsiaraziko den.
- k. Aurrekontu kreditua, edo, hala badagokio, prezioa zein kontabilitate programa edo izenpetan ordainduko den.
- l. Zer hedadura objektibo eta behin-behineko izango duen, hala ezarriz gero, kontratistari ezarriko zaion konfidentzialtasun betebeharrak.

Kontratua kontratista hautatzen denetik, gehienez ere, hamar eguneko epean gauzatuko da, baldin eta dagozkion plegu edo eskaintzetan beste epe bat ezarri ez bada.

ONDARROA LANTZEN, S.A.ren kontratu-baimena kontratua gauzatuz egingo da, eta hori egitearekin batera ulertuko da kontratua egiten amaitu dela.

12. ARRAZIONALIZAZIO TEKNIKOKO ARAUAK

ONDARROA LANTZEN, S.A.k enkante elektronikoak egin ditzake, esparru-hitzarmenak amaitu, sistema dinamikoak artikulatu edo obra, zerbitzu eta beste sozietate edo baltzuetako zerbitzuetako horniketen kontratazioa zentralizatu; betiere, SPKLko 132. artikuluan eta 178.etik 191.era bitarteko

artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrira eta, Barne Araudi honetan adierazitako moldaketak aplikatuta.

13. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Barne Araudi honetan azaldutako kontratuetatik sortuko diren auziak jurisdikzio zibilaren menpe ebatziko dira, alegia, kontratuak prestatzea, esleitzea, sortuko dituen ondorioak, kontratua betetzea edota amaitzea, horiek guztiak, jurisdikzio zibilaren menpe ebatziko dira.